



**Arartekoaren 2022R-1182-21 Ebazpena, 2022ko azaroaren 14koa. Horren bidez, Durangoko Udalaren Durango Kirolak zerbitzuari gomendatzen dio kexagileari itzul diezaiola padel-pista erreserbatzeko kontzeptuagatik ordaindutako zenbatekoa.**

### Aurrekariak

1. Kexagileak kexa bat aurkeztu zuen, zeinaren bidez Durango Kirolakek hari emandako erantzuna jakinarazi zion Arartekoari. Izan ere, zerbitzu horrek ezetsi egin zuen hark 2021eko apirilaren 22an, goizeko 10:00etatik 11:30era padel-pista bat erreserbatzeko kontzeptuagatik ordaindutako zenbatekoa itzultzeko eskera.

Interesdunak adierazi duenez, ezin izan zuen alokatutako kantxa erabili, egun horretan udalaren kirol-instalazioak itxita egon zirelako, Campos Arripausueta guneko langileak enplegu publikoaren behin-behinekotasunaren aurkako greba-deialdian parte hartzen ari zirelako.

Durango Kirolakek mezu elektronikoko baten bidez eman zituen interesdunaren eskaera ez onartzeko argudioak:

*“Buenos días:*

*Según el artículo 28.2 de la Constitución Española «Se reconoce el derecho a la huelga de los trabajadores para la defensa de sus intereses.» Dicho derecho es un derecho fundamental.*

*Los trabajadores no tienen derecho de preavisar en caso de que decidan realizar una huelga, por lo tanto Durango Kirolak no puede saber con antelación si sus instalaciones van a permanecer abiertas o no.*

*En cuanto al reembolso que solicita:*

*Tal y como recoge el «Reglamento General de personas usuarias y normativa de uso de las instalaciones deportivas.»*

*1.2. DERECHOS Y OBLIGACIONES DE LAS PERSONAS USUARIAS. 7. Las personas abonadas y usuarias podrán solicitar la devolución del servicio contratado en caso de incidencia o suspensión del servicio (averías en el mobiliario o en las instalaciones). No se procederá a la devolución por motivos meteorológicos o de fuerza mayor (incluida la huelga legal).*

*Saludos, Durango Kirolak”.*

Kexagilea, ordea, ez zegoen erabaki horrekin ados, alderdi hau aipatu gabe utzi baitzen: *“La imposibilidad de realización de la actividad no ha sido por causa imputable al obligado al pago y se está produciendo un enriquecimiento injusto a favor del Ayuntamiento en perjuicio del usuario de este servicio. El servicio de*



*pista de pádel no se prestó con motivo del ejercicio del Derecho de Huelga por parte de los trabajadores del Centro, y si bien esa inactividad no es imputable al Ayuntamiento tampoco es imputable a los usuarios/as afectados, quienes en definitiva dejan de beneficiarse del servicio que han concertado y pagado. Consideramos que la NO devolución de la cantidad pagada supone un enriquecimiento injusto de Administración Pública a la que le falta el justo título para conservar el valor ingresado –sea este pequeño o grande- ya que no se ha seguido la finalidad para el que fue abonado.”*

2. Kexa ikusita, erakunde honek Durangoko Udalari eskatu zion hartutako erabakia berriro azter zezala, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 49. artikuluan jasotako aurreikuspenetan oinarrituta. Nolanahi ere, tokiko erakunde orri eskatu zion kexagileak aurkeztutako alegazioen edukia berariaz baloratu eta horien inguruan zuen iritzia adieraz zezala.
3. Emandako erantzunean, Durango Kirolak zerbitzuak berretsi egin du erreklamazioaren hasierako balorazioa, eta horretarako, Kirol-instalazioak erabiltzeko araudia eta erabiltzaileen Erregelamendu Orokorren 1.2 epigrafearen 7. apartatuan jasotako aurreikuspenetan oinarritu da.

### Gogoetak

1. Kexan jasotakoaren arabera, herritar batek desadostasuna agertu du langileek egindako legezko greba bat ezinbesteko egoeratzat hartzearekin, eta, ondorioz, hark aurretiaz ordaindutako zenbatekoak itzultzea eragoztearekin. Hain zuzen ere, kexagileak 2021eko apirilaren 22an, 10:00etatik 11:30era, Campos Arripausueta gunean padel-kantxa bat erreserbatzeko prezio publikoa ordaindu zuen, hala ere, ezin izan zuen kontratatutako zerbitzuaren-prestazioa baliatu: erreserbatutako ordutegian padelean jokatzeko pista bat erabiltzea; izan ere, egun horretan Campos Arripausueta gunea itxita egon zen jendearentzat, instalazio horietako langileek grebarako eskubidea legitimoki erabiltzearen ondorioz.

Abiapuntutzat hartu behar da herritar horrek ordaindutako zerbitzua —grebaren ondorioak jasan zituena, kexagileak erreserbatutako espaziora sartzea eragotziz— ez zegoela Durangoko udalaren kirol-instalazioetarako abonua bat ordaintzearekin lotutako prestazioen eta zerbitzuen esparruan, ezta hilero edo hiru hilean behin programatutako jarduera edo ikastaro bat egitean ere; aitzitik, jarduera puntuala eta noizbehinkakoa zen, eta padel-kantxaren erabilgarritasunean sartzen eta agortzen zen, bertan jokatu ahal izateko, 2021eko apirilaren 22ko 10:00etatik 11:30era bitartean.





2. Durango Kirolak zerbitzuaren Araudi Orokorrak erreferentzia egiten dio zerbitzu horren *noizbehinkako erabiltzaileak* udalaren kirol-instalazioen baitan espazio bat erabiltzeko eskubideagatik prezio publiko gisa ematen duen kontraprestazio ekonomikoaren izaera juridikoari, eta erreferentzia hori ez da hutsala; izan ere, izaera juridiko horretatik ondorio juridiko batzuk eratortzen dira, eta ez dirudi, gure ustez, Durango Kirolak zerbitzuak bere Erregelamendu Orokorrean behar bezala txertatu dituenik.

Bizkaiko Lurralde Historikoan tokiko erakundeen baliabideak arautzen dituen araua honako hau da: Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Araua. Arau horrek tokiko erakundeek bete beharreko oinarrizko erregulazioa zehazten du. Zehazki, 44-50 artikuluetan zehazten dira prezio publikoak definitzen dituzten ezaugarriak, nork duen horiek ordaintzeko betebeharra, noiz kobra daitezkeen prezio publikoak, eta abar.

Adierazi behar da prezio publikotzat hartzen direla zuzenbide publikoko araubidean zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik ordaintzen diren diruzko kontraprestazioak, zerbitzu edo jarduera horiek sektore pribatuak ere ematen dituenean eta herritarrek aldeztatik borondatez eskatzen dituztenean.

9/2005 Foru Arauak, prezio publiko bat ordaintzeko betebeharraren kontzeptuari dagokionez, honako hau ezartzen du: *“Prezio publikoa duten zerbitzu edo jardueren onurak jasotzen dituztenek ordaindu beharko dute delako prezio publiko hori.”* (46. art.)

Era berean, toki-erakundeek prezio publikoak kobratzeari dagokionez, foru arau honek zera azpimarratzen du 49. artikuluan:

- “1. Prezio publikoa ordaintzeko beharra zerbitzua ematen edo jarduera burutzen hasten den unetik sortzen da, baina toki erakundeek zenbateko osoa edo zati bat aldeztatik gordailutzea eskatu ahal izango dute.*
- 2. Prezioa ordaindu beharra duenari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik zerbitzua edo jarduera ematen edo egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.*
- 3. Prezio publikoen ondoriozko zorrak premiamenduzko administrazio prozeduraren bidez eskatu ahal izango dira.”*

Manu horiek Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakunde guztien jarduna lotzen dute. Bada, arau horiek irakurrita ondorioztatzen denez, prezio publiko bat ordaintzera behartuta dagoen pertsona bati buruz hitz egin ahal izateko, beharrezkoa da eskatzaileak, nolabait, zerbitzua ematearen edo diruzko





kontraprestazioa ordaindu behar duen jarduera gauzatzearen onura jasotzea. Beraz, jarduerari edo zerbitzuari lotutako onura nabaririk ez badago edo ezin identifika badaiteke, ez ginateke egongo prezio publiko bat ordaintzera behartuta dagoen pertsona baten aurrean. Era berean, manu horiek irakurrita ondoriozta daitekeenez, zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten ez bada, ez da ordaintzeko betebeharririk sortzen, eta, beraz, administrazioak ezingo luke eskatu lotutako prezio publikoa ordaintzea. Gainera, hirugarrenik, honako ondorio hau izango luke: aldezturik prezio publikoaren zenbatekoa ordaindu izan balitz, toki-administrazioak soilik atxiki ahal izango lituzke legez, eta, beraz, itzuli gabe utzita, ordaindutako zenbatekoak, baldin eta zerbitzua edo jarduera ez bada ematen ordaintzeko betebeharra duenari egotz dakioken arrazoi batengatik.

Prezio publikoen aurreikuspen horiek hizpide dugun kasu zehatzera ekarriz gero, ondorioztatu beharko genuke kexagilea ez zegoela behartuta prezio publikoa ordaintzera, hark ez baitzuen inolako onurarik atera padel-kantxa bat erabiltzeko erreserba bat ordaintzetik. Era berean, aitortu beharko genuke ez zela prezio publikoa ordaintzeko betebeharra sortu, ezin izan zelako erreserbaren xedea gauzatu, izan ere, interesduna ezin izan zen padel-pistara sartu, udalaren kirol-instalazioak itxita egon zirelako egun osoan, grebaren ondorioz.

Ondorioz, ez luke inolako kontraesanik sortu beharko administrazioari prezio publikoa eskatzeko ahalmena ematen dion aurrekontua gertatu ez bazen —hau da, padel kantxa erabiltzailearen eskura jartzea, baldintza egokietan, erreserbatutako denbora-tartean padelean aritzeko erabili ahal izateko—, toki-erakunde horrek ezin duela legez eta legitimoki aldezturik ordaindutako kopurua atxiki.

Sarbide publikoa lortzearen ordainetan, udalaren kirol-zerbitzu horri zegokion betebeharra —padel-pista baten erreserba, kasu honetan— esleitutako denboran erabilera ez eragoztera mugatzen zen, hau da, kantxa eskatzailearen eskura jartzea edo, bestela esanda: ekipamendu zehatz hori kontratatutako helbururako erabiltzen utzi behar zuen erreserban finkatutako denboran.

Argi dago, hizpide dugun kasuan, Durango Kirolak zerbitzuak ez zuela padel-kantxa kexagilearen esku jarri 2022ko apirilaren 22ko 10:00etatik 11:30era, beharrezkoak ziren argi- eta zerbitzu-ekipamenduekin, eskatzaileak kantxa behar bezala erabili ahal izateko. Greba-egunaren ondorioz, Durango Kirolak zerbitzuak ezin izan zuen prezio publikoaren ordainetan zegokion betebeharra bete. Hala ere, kontratatutako jarduerari ekitea eragotzi zuen arrazoi zehatz hori, hau da, udalaren kirol-zerbitzuko plantillako langileek grebarako duten eskubidea zilegi baliatzea, ezin zaio inolaz ere kexaren sustatzaileari eta erreserba eskatu duenari egotzi, eta, beraz, kexagileari





aldez aurretik ordaindutako prezio publikoa itzuli behar zaiola ondorioztatu eta azpimarratu behar dugu.

Nabarmendu beharra dago kasu honetan ez dela honako hau gertatu: prezio publikoaren zenbatekoa ordaindu ondoren, erreserbaren eskatzailea, arrazoiak arrazoi, esparrura ez joatea eta zerbitzua ez erabiltzea, nahiz eta espazioa une oro bere eskura eta erabilgarri egon.

3. Durango Kirolak zerbitzuak argudiatu du ezinbesteko kasu bat dagoela kexagilearen aurrean duen erantzukizunetik salbuesteko.

Gure Kode Zibilak 1105 artikuluan jorratzen ditu ezinbesteko kasuak, eta honako hau aitortzen du: *“Legeak beren beregi aipatzen dituen kasuetatik kanpo, eta betebeharrak berak adierazten dituenetatik kanpo, inork ere ez du erantzukizunik izango, aurreikusi ezin diren gertaerengatik, edo, aurreikusita ere, saihestezinak direnengatik.”*

Argudio hori defendatzeak esan nahi du aurreikusteko ezintasunaren eta saihestezintasunaren maila berean jarri behar direla elkarren artean hain desberdinak diren gertaerak, hala nola greba-egun bat, publikoki deitutakoa, langileen plantillari berari eragiten diona, eta lurrikara bat edo hondoratze bat (hara hor doktrina zientifikoak ezinbesteko kasuei buruz eman ohi dituen adibideetako batzuk).

Arartekoak ezin du parekatze horrekin bat egin; izan ere, arestian esan bezala, udalaren kirol-zerbitzu horrek ezin ditu alde batera utzi Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 46. eta 49. artikuluek ezartzen dizkioten betebeharrak eta artikulua horietatik eratorritakoak.

Halaber, eta are gehiago, agerian utzi behar da justizia zibileko auzitegien doktrinak ere ez duela langileen grebarako eskubidea bidezko ezinbesteko kasutzat hartzeko joera.

Gure ordenamenduan, eragindako kalte-galerak konpontzeko betebeharra eska daiteke, norberaren egite edo ez-egitearen ondorioz ez ezik (Kode Zibilaren 1902. artikulua), beste pertsona batzuenaren ondorioz ere bai, pertsona horien gaineko erantzukizuna norberari badagokio (KZ 1903. artikulua).

Zehazki, Kode Zibilaren 1903 artikuluan xedatzen da erantzuleak direla *“establezimendu nahiz enpresa bateko ugazaba edo zuzendariak erantzukizuna*





*dute, euren menpekoek eragindako kalteen gain, kalteok gertatu badira euren lan-arloetan zerbitzuak egitean edo euren eginkizunetan aritzean.”*

Justizia auzitegiek hainbatetan eman behar izan dute iritzia greba batek erabiltzaileen eta kontsumitzaileen eskubideetan duen eraginaren eta ondorioen inguruan, bereziki, airetiko garraioaren sektorean. Doktrina hori, gure ustez, bereziki argigarria da.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko otsailaren 11ko 261/2004 (EE) Erregelamenduak, hegazkinean sartzea ukatuz gero eta hegaldiak bertan behera utziz gero edo asko atzeratuz gero aireko bidaiariei konpentsazioa eta laguntza emateko arau komunak ezartzen dituenak, onartzen du aireko garraiolaria salbuetsita dagoela bidaiariak konpentsatzeko betebeharretik, erregelamendu horren 7. artikulua araberan, baldin eta egiazta badezake hegazkinera iristeko hiru orduko edo gehiagoko atzerapena edo ezeztapena saihestu ezin ziren aparteko inguruabarren ondorio dela, baita arrazoizko neurri guztiak hartu badira ere.

Erregelamendu horren atariko 14. gogoetan, ezohiko inguruabar izan litezkeen kasuak jaso dira, esaterako: *“las huelgas que afecten a las operaciones de un transportista aéreo encargado de efectuar un vuelo”*.

Hala ere, atariko aipamen huts horretatik ez da ondorioztatzen greba guztiak nahitaez eta automatikoki aparteko inguruabartzat hartu behar direnik, konpentsatzeko betebeharretik salbuesten duena.

Aitzitik, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (aurrerantzean, EBJA), 2018ko apirilaren 17ko epaian (Krüseman eta beste batzuk kasua), honako hau berretsi du: *“35. En efecto de la jurisprudencia del Tribunal de Justicia se desprende que un suceso imprevisto no tiene que ser necesariamente calificado de “circunstancias extraordinarias” en el sentido referido en el apartado anterior, sino que cabe la posibilidad de considerar que tal incidente es inherente al ejercicio normal de la actividad del transportista aéreo en cuestión (véase, en este sentido, la sentencia de 17 de septiembre de 2015, Van del Lans, C-257/14, EU:c:2015:618, apartado 42)”* (Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren Epaia, 2018ko apirilaren 17koa, 3. aretoa, Krüseman eta beste batzuk, C-195/17 gaia eta beste batzuk, ECLI:EU:C:2018:258)

Hortaz: *“pueden calificarse de «circunstancias extraordinarias», en el sentido del artículo 5, apartado 3, del Reglamento n 261/2004, los acontecimientos que, por su naturaleza o su origen, no sean inherentes al ejercicio normal de la actividad del transportista aéreo afectado y escapen al control efectivo de este”*. (2017ko





maiatzaren 4ko epaia, Pešková eta Peška, C-315/15, ECLI:EU:C:2017:342, 22 apartatua).

Hala ere, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak onartzen duenean kanpoko grebak ezinbesteko kasutzat har daitezkeela, edo 621/2004 Erregelamenduaren arabera aparteko inguruabartzat jo daitezkeela, eskatzen du, gainera, greba airelineaz kanpoko langileek egin izana eta airelineak hegaldia bertan behera ez uzteko beharrezko neurri guztiak har izana. Hain zuzen ere, zera dio 2021eko martxoaren 23ko epaian:

*“42. Así, al indicar, en el considerando 14 del Reglamento n.º 261/2004, que pueden producirse circunstancias extraordinarias, en particular, en caso de huelgas que afecten a las operaciones de un transportista aéreo encargado de efectuar un vuelo, el legislador de la Unión quiso hacer referencia a huelgas externas a la actividad del transportista aéreo afectado. De ello se desprende que pueden constituir «circunstancias extraordinarias», en el sentido del artículo 5, apartado 3, de dicho Reglamento, movimientos de huelga seguidos por los controladores aéreos o el personal de un aeropuerto (véase, en este sentido, la sentencia de 4 de octubre de 2012, Finnair, C-22/11, ECLI:EU:C:2012:604).*

*Ahora bien, para quedar exonerada del pago de la compensación, no basta con que la huelga haya sido llevada a cabo por controladores aéreos, esto es, por personal ajeno a la aerolínea. Ya se ha mencionado en anteriores ocasiones que debe demostrar, además, que adoptó todas las medidas necesarias para evitar la cancelación del vuelo, ya sea mediante previsión de una reserva de tiempo suficiente como para ofrecer alternativas de vuelos comparables a la del vuelo cancelado, o bien, justificando que se tomaron las medidas razonables para evitar la convocatoria de la huelga.”*

Beste modu batera esanda, epai horietatik ondorioztatzen da kaltetutako bidaiarien konpentsazio-eskubidea honen araberakoa izango da: airelineak greba kudeatzeko ardua duen ala ez. Hau da, greban parte hartzen duten langileak airelinea konpainiako langileak diren (barne-greba) edo, aitzitik, airelinea antolatzeko gaitasunekin inolako loturarik ez duten hirugarren langileak diren (kanpo-greba). Horrenbestez, soilik azken kasu horretan izango litzateke posible, kasu batzuetan, airelinea-konpainia erantzukizunetik salbuestea, aparteko inguruabar bat gertatu izanagatik.

Zerbitzuarekin bat gatoz, jakina, esaten duenean Durango Kirolakek ezin zuela langileek greba-eskubidea baliatzea oztopatu. Hala eta guztiz ere, behin greba-





eguna publikoki deitu ondoren, zerbitzuko langileei ere eragiten ziena, lanuztea ezaguna zen, eta, beraz, zerbitzuak dagoeneko aurreikus zezakeen grebak 2021eko apirilaren 22an udalaren kirol-instalazioen ohiko funtzionamenduan eragina izan zezakeela. Hori dela eta, kirol-zerbitzu horrek noizbehinkako erabiltzaile horrentzako ondorio kaltegarriak saihestu ahal izan zituen, hark egindako erreserba baliogabetuta eta zenbatekoa itzulita.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Durangoko Udalari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

#### GOMENDIOA

Kexagileari padel-kantxa bat alokatzeko kontzeptuagatik ordaindutako zenbatekoa itzul diezaiola, Durango Kirolak-ek ez baitzion pista eskura jarri, jarduera hori erreserbatutako unean eta egunean gauzatzeko. Kantxa eskura jarri izanak baino ez luke justifikatuko zerbitzu horrek interesdunari prezio publikoa kobratzea.

Era berean, Arartekoak beharrezkotzat jotzen du Kirol-instalazioak erabiltzeko araudia eta erabiltzaileen Erregelamendu Orokorren aurreikuspenak aldatzea eta legezko grebari buruzko aipamena ezinbesteko kasu gisa baztertzea.

